

# ttüpi-ttapa

1995ko urtarrilak 19 • 150. zenbakia

Erreportaia

**BAZTAN IKASTOLAK  
25 URTE BETE DITU**

**NEGU GORRIAN  
BESTARIK ZOROENAK**

orain, **ttipi-ttapa** argitaratua



# ttipi-ttapa

- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala.
- ✓ Profesional, komertzio eta lantegi guzti-guztiak bilduko dituena.
- ✓ Herrika eta aktibitateen arabera klasifikatuak.
- ✓ Urte osoan eta momentu guzitan kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa desberdinekin.

## Nola anuntziatu

Modu bat baino gehiago dago, bakoitza bere tarifarekin

### Letra beltzean.

Horrela, letra arruntean daudenetatik nabarmenduz.

Adibidez... (Osiña eta Okane)

### HARATEGIAK

#### ARANTZA

#### OSIÑA

Osiña Auzoa, 8 .....634188

MACICIOR LARRALDE, F. Karrika Nagusia .....634114

#### BERA

BORDA - Patxi - Bidasoa, 16 .....630082/631406

PRIETO IRAZOQUI, J. A. - Errotazar .....630058

#### OKANE

Kanttonberri, 4 .....630018

PAGOLA - Altzateko Plaza, 28 .....630054

PANDO ROJO, C. - Bidasoa, 71 .....630452

### Moduloetan sartuz.

Neurri eta prezio desberdinetakoak daude. Adibidez...

### ELEKTRIZISTAK

TXIMISTINDAR ANDUEZA (Modulo bat)

**Tximistindar**  
**J.M. Andueza**

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK

Askain karrika, 12 - 4. Ezk.

Faxa eta Tfnoa: 948 - 63 08 54 **BERA**

### DESINFEKZIOAK

BERA DESINFEKZIOAK (Orrialde erdia)

Baztan,  
Bortziriak,  
Leitzaldea,  
Malerreka  
eta  
Saraldeko

PROFESIONAL  
KOMERTZIO  
LANTEGI eta  
ZERBITZUAK




**DESINFEKZIOAK**  
**DESINSEKTIZAZIOAK**  
**DESARRATOITZEAK**

© 63 01 55 BERA

Zure ingurua  
klase guzitako insektuz  
(xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...)  
eta arratoi-xagutxoaz garbitu nahi  
baduzu, deitu!  
Gu arduratuko gara horretaz.

Eta orain, **Termita eta Polillen**  
kontrako tratamenduak ere  
egiten ditugu.



ESTABLEZIMENDU eta ZERBITZU PLAGIZIDEN ERREGISTRO OFIZIALA NA-144-T Zenbakiduna

Eskatu informazioa konpromisorik gabe • © 63 11 88

## DATUAK

❖ Jose Luis Etxegarai, Lesakako alkatea, duela 47 urte jaio zen Nabaz auzoko Agortxeberri baserrian.

❖ Lanbidez enkargatua da CSI-Transformados-en

❖ Zortzi urte daramazki alkatetzan PNV alderdiaren buru bezala, azkeneko legealdian gehiengo osoa lortuz gainera.

❖ Iruñeko Auzitegiko fiskalak sei urteko inhabilitazioa eta 100.000 pezetako zigorra eskatu du beretzat, joan den urteko sanferminetan bandera espainola ez paratzeagatik.

## Jose Luis ETXEGARAI: «Bertze alkateek lekzioa ikasteko nirekin egin dute saioa»

### ZER GERTATU ZEN JOAN DEN URTEKO SANFERMINETAN FIS-KALAK HORRELAKO ZIGORRA ESKATZEKO?

Azken urtetan bezala, herriko ikurrarekin batera, Nafarroakoa eta ikurriña paratu gunden Herriko Etxean. Larunbatean guardia-zibilak espainola paratzeko erran zidaten bi aldiz, baina nik ezetz erran nuen. Horren ordez, herrikoa bakarrik utzi genuen eta egun hartan ez zen deus gertatu. Handik hilabete t'erdira deklaratzera deitu ninduten.

### NAFARROAKO BERTZE 8 HERRITAN GERTAKARI BERTINTSUAK IZAN DIRA ETA EZ DA DILIGENTZIARIK IREKI. ZER BALORAZIO EGITEN DUZU HORRETAZ?

Momentuz niri bakarrik deitu didate tribunaletatik, nahiz eta bertze herritan gauza beretsua gertatu. Hone-lako kasuetan, bandera ez paratzeagatik alegia, ez da jurisprudentziarik, ez da inoiz epai-ketarik izan orain arte. Uste dut badela norbait hor barna jurisprudentzia sortu nahi duena eta bertze alkateek



lekzioa ikasteko nirekin egin dute saioa. Norbaitek kontutan hartu beharko du ohi-turak eta herriko giroa mantendu nahi nitue-la.

### GAIA ALDATUZ, BIZPAHIRU URTEZ IA 500 LANPOSTU GALDUKO DIRA LAMINACIONES-EN.

### ZER ERAGIN IZANEN DU HERRIAN?

Laminaciones-eko langileen artean eragin handia izanen du, baina lantegitik kanpo ez du horrenbertzeko eraginik izanen. Produktzioa mantendu behar da beraz, garraiolariak lan berdina edo gehiago izanen dute. Nabaritu da, noski, langabezia berretuko delakoz, batez ere gazteen artean eta zuzeneko postu horietan. Orain fabrikari direnak lanpostu indirektoetan

arrituko dira eta hor lan gehiago izanen da.

### ZER BALANTZE EGITEN DUZU AZKEN LEGEALDI HONETAZ?

Esku artean ditugun lan garrantzitsuenak apartamentu tutelatuak eta futbol zelai berria dira momentu honetan. Idea gehiago ere badaude. Herriko Etxeak hasieran zituen asmoak bete direla uste dut, ez nahi adina, diruak ez baitu gehiagorako ematen baina gustora nago egindako lane-kin.

» «Laminaciones-eko lanpostu murrizketak langabezia berretuko du, batez ere gazteen artean eta zuzeneko postu horietan. Fabrikatik kanpo berriz, lan gehiago izanen da.»



# BAZTAN IKASTOLA: BERTZE 25 BETETZEKO PREST

**Hogeita bortz urte bete dira Baztan ikastola sortu zenetik. Hori dela eta, hainbertze besta eta ospakizun ekitaldi antolatzeaz gain, orain artio egin dutenari buruz hausnartzeko eta etorkizunaren aitzinean indarberritzeko aprobeztatzen ari dira urteurrena irakasle, guraso eta arduradunak.**

TESTUA:

JOXEMANUEL IRIGOIEN

ARGAZKIAK:

BAZTAN IKASTOLAK UTZIAK

**h**ogeitazazpi ikasle eta andereño batekin gorputzen hasitako proiektua, gaur egun 230 ikasle eta 13 irakasle izateraino hazida. Bidean, normala denez, mila ilusio eta katramila bizitu dira: udal-ikastola bihurtzea, Nafarroa Oinez Elizondon ospatzea, egoitza egokien faltan Baztango udalarekin izandako arazoak... Alabaina, badu Baztan ikastolak bertze ikastoletatik bereixten duen aspekturik; udal-ikastola izatea, adibidez. Gobernatze lan osoa, hamar lagunez osatutako Eskola Kontseiluaren esku dago (lau udal ordezkari, lau guraso eta bi irakasle osatua). Dena dela, "ikas-

tolak autonomia osoa du" Kepa Dendarrieta zuzendarriak dioenez. Hori bai, diru kontuei dagokionez, defizita dagoenean erdia udalak estali behar du eta bertze erdia gurasoek, estatutuetan erratan den bezala.

## URTEURRENA OSPAKIZUNEZ BETEA

Udazkenean hasi eta uda bitarte maila eta klase guzitako aktibitateak ari dituzte burutzen. Horarako, hainbertze jendek parte hartzen du gauza batean ez bada bertzean; gurasoak, ikasle eta ikasle ohiak, irakasleak... Eta urteurrenari akabera emateko, besta haundia ari dira prestatzen uda hasierarako, bainan eguna eta gainera xe-

hetasunak oraindik zehaztu gabe daude. Horrekin batera, burubelarri dabilta 25 urteak gogoratuko dituen liburua prestatzen.

## ETORKIZUNA

Bigarren Maila, 12-16 urte bitartekoa Baztan Ikastolan emateko asmoa agertua zuten arduradunek hasiera batean, bainan azkenean, Kepa Dendarrietak dioenez, borroka hori "alde batera utzi beharrean"

aurkitu dira. "Nafarroako Gobernuan arras itxiak zue dela ikusi genuen eta jartzen zituzten baldintzak guretzat gaindi-eginak zirela".

Hortaz, erreforma martxan jarriko denean, ikastolan 12



«Ikastolako irakasle izatea, lanbidea baino gehiago ere bada niretzat»

■ Hogeitabortz urteotan eman diren aldaketa guzietatik zerbait aipatzekotan, zer aipatuko zenuke?

□ Buff, pentsa, izugarri aldatu da dena. Lehen behartsuagoak ginen, orain ere bertze eskolekin konparatuz halaxe gara... baina bertze ere, irakasle-ikasle arteko harremana oraindik estuagoa zen hasieran. Gaur ikasi beharreko kontenidoei garrantzia gehiago eman beharrean

egoten gara, halaxe eskatzen baitigute, eta irakaslearen papera, batez ere, kontenido batzuk transmititzera mugatuago dago. Gero, izan ziren urte batzuk egoitza egoki baten beharra zela eta, mugitu beharrean egon girela, eta orduan ikusi zen ikastola ez zela ikastetxe bat bertzerik gabe, bazela gibelatik mugimendu oso bat. Nik zer dakit, baina, nolabaiteko beharrik ez dago-

nean, dena lasaitzeko joera izaten da. Ilusioa bizirik mantentzeko ahalegin

pila behar izaten dira egin.

■ Zure kasuan ikastola batean irakasle izatea, lanbide arrunta baino zerbait gehiago da?

□ Da, dudarik gabe. Ni ez naiz soilik irakasle sentitu. Ikastolaren partaide bat gehiago naiz; ikastolak sufritu duenean pila bat sufritu dut.

Dena dela gustatzen zait nere lana eta ikasleekin izugarri gustora sentitzen naiz.



**M<sup>a</sup> Karmen GOÑI**

Baztan Ikastolako lehenengo irakaslea

urteak bitarte irakatsiko da. Halere, "argi dago ikastolak baduela bere lekua eta bere hezkuntz-proiektua — dio Kepak— eta Baztanaldean, gainera, behar beharrezkoa dela ikastola euskarren egoera egiazki normalizatzeko, irakaskuntza eskalduna segurtatzen baitu ikastolak".

### URTEZ URTEKO BILAKAERA

Hainbat gauza aipatu gabe geldituko badira ere, Ikastolako datuen arabera hauetxek dira seinalatuenak:

#### 1970-71

Markos Irigoien, Pablo Eraso, Fco. Egozkue eta bertze hainbat euskaltzalaren bulkadaz Ikastola sortu da. Miserikordiako gela batean eskolaurreko 23 eta OHoko 5 ikasle bildu ziren.

#### 1977-78

Parkeko eskolan lau ikasgela ezarriko dira. Denetara 121 ikasle daude eta hurrengo urtean lehenengo aldiz 6. maila emanen da Baztan Ikastolan.

#### 1979-80

Zortzi ikasgela daude Elbeteiko eskola eta Parkekoaren artean. Miserikordian ez da klaserik ematen eta denetara 170 ikasle daude matrikulatuak.

#### 1980-81

Legeztatzeko tramiteak hasien dira. Lokalen falta arazo larria da. Udal-ikastola bihurtzea proposatzen da.

#### 1981-82

Baztango udalak ikastola munitziazatzeko tramiteari hasiera emanen dio. 1982an Elizondan ospatuko da Nafarroa Oinez. Pilar Ikastetxea erosteko saiakera egiten da, bainan azkenean, saiakera alde batera utzi eta ikastetxe berri bat egiteko hautua hartzen dute.

#### 1983-84

Udal-ikastolaren estatutuak onartzen dira. Gurasoek Parkeko ikastola berritzen dute. Udal-hauteskudeetan UB-k irabazten du eta ondorioz, zailtasunak sortzen dira Eskola-Kontseiluan udal ordezkariak izendatzerakoan. ■



GOIAN DAGOEN ARGAZKIAK 22 URTE DITU. GABONETAN KANTARI PILAR-EN.

EZKERREKOAN ETA BEHETIKO ARGAZKIAN, 1971-72 IKASTURTEKO IKASLEAK AGERI DIRA, MISERIKORDIAN.



DUELA 21 URTE 5. MAILA ARTIO EMATEKO BEHIN BEHINEKO BAIMENA ESKURATU ZUTELA OSPATZEKO, IKASTOLAKO ARDURADUNEK AFARIA EGIN ZUTEN MAKITENEAN.

ESKUINALDEAN, 8. MAILA IKASTOLAN BETE ZUEN LEHENENGO PROMOZIOA: M<sup>o</sup> JOSE ALAÑA, PILARTXO VIGURIA, IGNACIO AMORENA ETA JOSE JABIER ITURZAETA.



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 5.950 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPi-TTAPA KE

HERRIKO ETXeko PLAZA, 1

31780 BERA

TFNOA: 63 11 88

FAXA: 63 12 91

**Zuzendaria:** Joxemanuel Irigoien.

**Publizitatea:** Miren Karmele Tolosa.

**Erredakzioa:** Aitor Arozena, Joxemanuel Irigoien.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Kristina Boan, Bittori Telletxea.

**Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban Isasi, Txema Aldabe, Pello Otxegia, Txema Urroz, Patxi Otxandorena, Daniel Martirena, Ixabel Maia, Josune Etxebeste, Pablo Mendiburu, Joseba Igarabide, Alizia Olaizola, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Alberto Sansiñena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Kristina Boan.

**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Patxi Lasa, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria, Arantxa Zabala...

**Inprimategia:** Gertu (Oñati).

**ttipi-ttapak** ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzukizunik.

**Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitzua, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNeko GAIA

### Sektore produktiboa gainbehera

#### Prest gaude Planaren alde txarrak onartzera geroa ziurtatzen bada



Enrike LOPEZ  
ELAko ordezkaria

Orainarte Laminaciones de Lesaka izandakoaren Bideragarritasun Plana onuragarria izanen da globalki, horrekin, enpresaren etorkizuna segurtatzen baldin bada. Zentzu horretan, gu prest gaude horrek ekarriko dituen kostuak gure gain hartzeko. Jakina da bi urte hauetan 467 lanpostu galduko direla. Hori da txarrrena. Bainan bueno, ajuste horren ondorioz enpresa sendotu eta produkzio mantenduko bada, eta kontutan hartuz enpresak zonarako duen garrantzia, Bideragarritasun Planaz egiten dugun balorazioa, positiboa da globalki. Dena dela, Planaren zenbait aspektu hobetzen ahal direla uste dugu (aurrejubilazioak, inbertsioak...) eta hortarako, sindikatuen konpromisioa beharrezkoa da. Gauzak pentsatu bezala gertatuko diren edo ez, zaila da momentu honetan erratea, bainan gure ustez esfortzu honek enpresaren etorkizuna segurtatzeko balioko du.

#### Lantegien etorkizuna ez dugu uzten ahal multinazionalen esku



Julen MITXELTORENA  
LABeko ordezkaria

CSI-Transformatuak-i buruz balorazioa egiterakoan, bere osotasunean hartu behar da kompetibitate Plangintzaren Akordioa. Kompetibitate Plangintzak badiu bere alde onak eta ez onak. Gaur egun inbertsio plangintza sakona eta Lantegiko mugimendu guztiak Komitearekin negoziatuz egitea ezinbestekoa da. Hau da Akordioak duen alderdirik baikorrena. Beste aldetik begi bistan dago produkzio eta beste departamenduen artean dagoen desoreka plantilari dagokionez. Honek eszedenteak badirela onartzea dakar. Eta hau izanen litzateke plangintzaren alde beltza. LABen sakonki eztabaiatu dugu Sektore honen etorkizuna eta honek Bidasoaldearentzat suposatzen duena. Sektoreak Euskal Herrian duen arriskua ikusirik Akordioa ontzat eman dugu. Ez besterik egin ez daitenkeelako, lantegi honen etorkizuna konprometzuz eta arduraz hartzen dugulako baizik.

#### Inbertsioek ez dute ziurtatzen CSIren etorkizuna hemen



Pello ASTIZ  
ESK-CUIseko ordezkaria

'CSI Transformados' izenez bataiatu berria den enpresak zonan dituen 3 lantegiek (Arratzubi, Zalain, Legasa) garrantzia handia dute bertako bizimoduan. Horregatik kezka handia sortu zuen gure sindikatuan, CSIk aurkeztu duen Bideragarritasun Planaren espedienteaz ezagutu genuenean, bertan, bertze neurri batzuren artean, lanpostu murrizketa planteatzen baitzen, traumatikoki ez bazen ere. Zenbait sindikatok eta enpresak lortutako akordioa ez genuen sinatu arrazoi hauen gatik:

- Enpresak planteatzen dituen inbertsioek, ez dute ziurtatzen enpresaren etorkizuna gure eskualdean.
- Lesakan 255 lanpostu desagertuko dira, Perfrisa zenekoan 341 eta Errotxapeako lantegia itxi.
- Akordiorako erabili diren bideak ez zaizkigu zuzenak iduritzen, zenbait sindikatoen ordezkariak gehiegizkoa izan baita.

Gida 95



ttipi-ttapa

Baztan, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka eta Sarako PROFESIONAL, KOMERTZIO ETA LANTEGI guztien

## Gida Komertziala

- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala
- ✓ Profesional, komertzio eta lantegi guzti-guztiak bilduko dituena.
- ✓ Herrika eta aktibitateen arabera klasifikatuak.
- ✓ Urte osoan eta momentu guztian kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa ezberdinekin

Eska ezazu informazioa konpromisorik gabe • © 63 11 88

BOIA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO



*Jubilazio  
aitzinduak  
Laminazioetan*

**Erika LAGOMA**  
Doinua: Kontsesi

*Langile batzuentzat  
hain da bikaina  
beste batzu lanean  
gelditu baina  
a ze txoioa  
lan egin gabe kobratzekoa  
hau da mundua  
batzuk jaso beste kendua  
gauza grabea  
gaztedia lanikan gabea.*

*Lanaren malizia  
eta gazia  
ere entzuna dugu  
poz irrintzia  
zuen soldata  
badakigu ez dela aparta  
baina hor konpon  
jubilatutakoei zorion  
txintxo kobratu  
ta ez daukanarekin oroitu.*

**Bartoloren  
oroitzapenean**

Beti erraten dena (ez zaitugu inoiz ahantziko) zure heriotzean ez da nahikoa. Besta bezperako piperradak zure xaltxa falta izanendu. Nahiz eta azkenean urteotan ez zinuen posible kantatzea, aintzinetik utzia zinuen zure lana ('poxpoxpori' kantatzen segituko dugu). Ez dira hamabortz egun baizik pastu eta nabari da zure isatsaren falta herriko aunitz zokotan. Lapitxeko atea orain arte hain garbi eta apain zegoena ez ote da larretatuko? Faltan hartuko dugu zure kuartroele txuria karrika goiti-ta-beheiti... Bainan segur nago zure umore ona eta zure hitzak ez direla egiaz mututuko, eta hainbetez urtez zeorrek kanposantuan lurperatu dituzun haiekin ixtorio kontan eta kantari ari zarelarela uste dut.

KORO  
(ZUGARRAMURDI)

**Lesakako  
idazkari  
lanposturako  
deialdia**

Lesakako Euskara Batzordeak udalak idazkari

lanposturako egin duen deialdiaren aitzinean bere iritzia azaldu nahi luke.

Urteak dira, bai Lesakako Euskara Batzordea bai Euskara Mankomunidadea bera ere—Lesakako Udala bertan delarik—, euskara gure eguneroko bizitzaren xoko guzietara ailegatzeko helburuarekin lanean ari garela.

Halere, idazkari lanpostuaren deialdia ikusita, Lesakako Udalaren borondate falta somatzen dugu. Izan ere, deialdi horren arabera ez baita ziurtatzen lanpostua eskuratuko duen langilea euskaldun alfabetatua izanen denik, euskararen frogak eliminatorio ez denez.

Euskararen frogak, azterketak dituen 110 puntuetatik 30 puntu balio ditu. Gainera, ahozko frogak 20 puntu balio ditu eta idatzizkoak, berriz, 10. Beraz, 10 puntu horiekin nekez frogatu ahal izanen da langileak euskaraz ongi idazten duen edo ez.

Zalantzarik gabe, udal baten funtzionamenduan idazkariaren lanpostua garrantzitsua da. Lesakako Udalean langile guztiak euskaldunak dira eta gainera, bulegoan daudenak alfabetatuak daude. Beraz, lan-

postua eskuratzen duen idazkaria erdalduna edo euskaldun alfabetatugabea izanez gero, Lesakako Udalaren euskarazko funtzionamenduan oztopo bat litzateke.

Jakin badakigu, orain arte egon den idazkariak egin duen modura, etorriko den berriak ere euskara ikasteko aukera izanen duela. Bainan hagitzez hobe litzateke hasieratik deialdi egoki bat egitea, euskara nahitaezko baldintza izanik eta horrela, langile euskalduna eta alfabetatua ziurtatua izatea.

Gure ustez egokiena zera litzateke alegia, Bortzirietako bertze udalek akordatu zuten bezala, Lesakakoak ere bere plan-tilan euskara derrigorrezko baldintzatzat onartzea. Erabaki hau hartzea logikoena litzateke, Bortzirietako eta bereziki Lesakako euskararen egoera eta euskarazko eskaera ikusirik.

LESAKAKO  
EUSKARA BATZORDEA

**ETXANDI  
TXOKO  
erretegia**

Bazkari, afari eta  
gosariak

**ITUREN**  
Tfnoa: 45 04 91




**KATTU**

OSTATUA  
JATETXEA

- Karta
- Eguneho menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



LESAKA



Diario de Noticias 95+11

«Zerria ongi hazi eta bazkatu ezkeru, seguru ona ateratzea».

**Teresa, Maritxu eta Pakita**

Oierregiko Mokotondoak  
Diario de Noticias 95+11

«Intsumisioa ulergarria da, baina erabakia hartzea zaila iruditzen zait. Dena den oraingo gaztediari ulertzen diot».

**Inaxio ERRANDONEA**  
Pilatario

Diario de Noticias 95+10

«Izeber baten punta besterik ez zen izan ikastola, dena nahastu baitzen: euskara, politika, ikastola. Oraindik badago zatiketa hori, eta eskola publikoan bada euskal adarra, eta harat eramaten dituzte batzuek haurrak, gogorki gainera».

**Kepa DENDARIETA**  
Baztan Ikastolako zuzendar.  
Euskaldunon Egunkaria  
Nafarkaria 95+13

### ◆ Zer iritzi duzu GAL-i buruz?

❖ Gobernuaren kontu bat dela, adibidez.

### ◆ Zerk haserretzen zaitu?

❖ Eskararekin kontzientziatuak ez egotea.

### ◆ Gustoko duzun telebistako saio bat?

❖ Goenkale.

### ◆ Noren posterra jarriko zenuke zure gelan?

❖ Pantera Rosa-rena.

### ◆ Gustoko duzun bokadilloa?

❖ Tortilla urdaiazpikoa eta gaztarekin.

### ◆ Idazten duzu asti libretan?

❖ Bai.

### ◆ Zer behar du euskarak Bortzirietan?

❖ jendearen aldetik borondatea.

### ◆ Zer gustatzen zaizu neska/mutil batengan?

❖ Sintzeroa eta umore onekoa izatea.

### ◆ Ilargi bete dagoen gauetan...

❖ ...gau peligrasua!!

### ◆ Zer nahi zenuke ikusi giltzaren zulotik?

❖ Ikusi baino gehiago, aditu.

### ◆ Piropo bat?

❖ Ni zu gabe, erle bat lorerik gabe.



**Patrizia ARBURUA**  
Bortzirietako  
Euskara Teknikaria

# OKANE

**HARATEGIA • URDAITEGIA**

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

# ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa

Altzate 28 - BERA

# EDARIAK



**MANUEL TABERNA S.L.**

# INÁUTERIAK

## BAHIA - Brasil

15 egun (Otsailaren 16tik martxoaren 2ra)

Hegazkina + \*\*\*\* hotela + gosaria

**115.000 pezeta**



Informazioa: 637050 telefonoan  
**MALDAERREKA Bidaiak**





# Gure Txokoa elkarteak berrikuntzak ageri dira

Lamixine Antzerki taldeak arrakasta lortu zuen 'Altzateko Jaun' antzeslanarekin

KRISTINA BOAN

Hasi berria dugun urte honetan berrikuntzak ageri dira Gure Txokoa elkarteak. Batetik, sukaldean diren berritze lanak akautu ondotik ikusten ahal dena: beharrezkoak ziren aldaketak baino ez dituzte egin, frigo-konjeladore jarri, estraktore industrialak, erdoiltzen ez den altzairuz egindako mobleak eta azulejatzea.

Bertzetik, Gure Txokoa elkarteak osatzen duen batzordea aldatu beharra dago. Beraz, bai bokaliak baita zuzendaritza eramanen duen jendea ere aldatuko da eta berriz urte batzutarako lanean segituko dute. Batzorde berria aukeratzeko bilerak hurrengo hilabetean egin nahi dira eta elkarteak berak adierazi duenez, komenigarria litzateke bazkide gehienak bertan biltzea.



Alkaiagako poligonorako zubi berria egiten ari dira. Ikusi behar enpresak ere sortzen diren

Argazkia: Karmele

## Lamixine Berako Antzerki Tailerrak arrakasta lortu zuen 'Altzateko Jaun' lanarekin

Lamixine B.A.T. Antzerki talde sortu berriak, eguberrietako besten akaberan erakutsi zuen "Altzateko Jaun" lana eta izan duten arrakasta ikusita kontent dardela erran dute.

Momentuz, oraindik lan hori bera moldatzen segitzen duten

bitartean, antzeslan berri bat prestatzen hasiak dira. Honekin batera, hainbat ikastaro eta saio egin dituzte ahotsa, gorputz mugimenduak eta bertzelakoak lantzeko.

Larunbatero biltzen dira goiz guzian zehar entsaiatzera. Antzerki tailer honek momen-

tuz duen behar handiena laguntza ekonomikoa da, horregatik laguntza bono edo txartel batzuk egin dituzte lagundu nahi duenarentzat. Gainera, arropa zaharrak biltzen segitzen dute, antzeslanetarako baliagarria izanen zaielakoan.

### ttipi-flash

#### Emakume taldearen deia

Berako Emakume taldeak martxoaren 8an erakusketa egiteko asmoa du; emakumeek egindako edozein lan aurkezten ahal da. Informazio gehiago hurrengo aleetan emanen da.

#### Dantza ikastaroa

Urtarrilak 14, 21 eta 28an Gure Txokoa dantza taldeak haurrak dantza ikastaroan matrikulatzeko epea irekiko du. Larunbatetan apuntatu ahal izanen dira, 12etatik 1etara Eztegara frontoian.

#### Dantza garaikide ikastaroa

Hasi berria da dantza garaikide ikastaroa. Interesa duenak (943) 632696 telefonora deitu beharko du. Ikastaroaren antolatzailea BAI antzerki taldea da, udalaren babesarekin. Françoise Derderian irakasleak ortzegunetan irakatsiko du Kultur Etxean 6,30etatik aintzinerara.



**ANSONEA**  
JATETXEA

Kontsultatu menu bereziak

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630072 • BERA

LOZOTEGI-JAZIONE



Itzea 3 • 630786 • BERA

**BOTXO**  
ostatua

Tfnoa: 63 00 52  
Zalain Auzoa, BERA

GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK  
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

**Lesaka**

## 'Laminaciones de Lesaca' enpresak izena aldatu du

Urtarrilaren 3tik aitzinera 'CSI Transformados' deitzen da

**AITOR AROZENA**

Betidanik 'Laminaciones de Lesaca, S.A.' bezala ezagutu dugun enpresa 'CSI Transformados' deitzen da urtarrilaren 3tik aitzinera. Izena aldatzerakoan fabrikak zuen patrimonioa 40.306 milioi pezetakoa zen eta 'CSI Transformados' enpresak akzioen %100a bere eskuetan du.

Zoritzarrez, izen aldatetakin batera, 60 langile baino gehiagori kontratua eten zaie, aurrejubilazioaren bidez.



San Anton eguna ospatu zuten izen bereko auzoan asteartean. Halere, igande honetan espero da jendetzarik haundiena Arg.: AITOR

### San Anton auzoan besta giroa izanen da aste honetan

Asteartean San Anton eguna zela eta zenbait lagun auzoko ermitan elkartu baziren ere, igande honetan eguna erromeri giroan igaroko duten bisitari aunitz, oinez nahiz kotxez joanak, espero dira leku berean.

Aspaldiko ohitura da San Anton eguna ospatzea. San Anto-

neko baseliza 1650. urte inguruan eraiki zen eta garai batean, Oiartzun, Irun eta Lesakako baserritarrek azienda tratu de xente egiten omen zizuten inguru horretan. San Anton azientzen zaindaria da eta seguraski hortik etorriko da ospakizun hau.

### Euskara Batzordea ez dago konforme Idazkari lanposturako deialdiarekin

Lesakako Euskara Batzordea ez dago konforme udal idazkari lanpostua betetzeko Herriko Etxeak egin duen lehiaketa deialdiarekin. Batzordearen arabera, "lanpostua beteko duen langilea euskaldun alfabetatua izanen dela ez da ziurtatzen".

Azterketaren puntuazioa 110 puntukoa da eta horietatik 30 ematen zaizkio euskara frogari, baina ez da eliminatorioa izanen. 30 puntuetatik ahozko euskarak 20 puntu dituzte eta idatziak 10 berterik ez. Merituetan ere, gehienez 4 puntuarekin baloratuko da.

*ttipi-flash*

- ❖ **Telebistarako** serie bat grabatuko dute herrian otsaila eta martxoan. Barne eta kanpoaldeetan grabazioak egiteko baimena eman dio udalak 'Centro de Sincronización y Doblaje' enpresari.
- ❖ **1.384.306** pezeta jasoko dituzte hameka korporazio kideek joan den urteko lan sari gisara. Diru hori hamabi zatitan banatuko da eta horietatik bi alkateak jasoko ditu.
- ❖ **San Fermin Jubilatuko elkarteari** hogeitazero eman zaio Alhondiga edo Eskribonea etxeke beheko solairua. Udalaren ustez, lokal honetan egin behar diren ekintzak interes soziala dute, batez ere adinuztatzen.
- ❖ **Herriko Etxea** Mari Carmen Mikeok garbituko du aurten. Berea izan zen eskeintza bakarra, 915.531 pezetatant.

**ARRANO**

**OSTATUA**

☎ 627597 • LESAKA

**BEKO ERROTA**

Lore eta landareak  
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26  
LESAKA

**Deñe**

LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfnoa.: 62 75 14  
Beheko Plaza 8, LESAKA

**ZALAIN**

J A T E T X E A  
EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Zalain Auzoa  
☎ 63 09 67  
**BERA**

**Boda eta banketeak ematen dira**

**EROSLE**

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

**Frexkuena**  
zugandik  
hurbilago

Bitirria, 67 - ☎ 637264



# Ondarrean herriak eskuratu du Zabaleta mendia

Duela aste batzuk sinatu du kontratua alkateak Otazurekin

PELLO ETA ALBERTO

Aspalditik zebilen Udaltzat hau Zabaletako mendia deitzen denaz jabetzeko lanean. Zumeldiko errekatik Bera aldera zabaltzen den eremuaren zati haundiena erosiz, ia 107 hektareatan haunditu da Etxalarko herri lurra, plantaziotarako lur ona. Baldintza onetan burutu da, gainera, erosketa: denetara 25 milioi pezeta ordainduko zaio Otazuri, zeinetatik %40 Nafarroako Gobernuak. Herriak paratuko dituen 15 milioietatik, bi terdi kontratua sinatzera koan eman ditu; gainerakoa, 10 urtez ordaintzen joateko prestamoa hartuko du, korritu ttikiko prestamoa, hain zuzen, Gobernuak ho-



**Estadu espainoleko 1.100 esplotazioren artean 37 sari banatu dituzte, zerriaren kalidade haundia lortzeagatik. Nafarroak bereganatu ditu 11 sari, eta bat, brontzezko saria, Xoraxuriko Bordako Mari Asunek.**

rretan ere korrituaren %8a kenduko baitio.

Ehunka urte direla jabetu zen Lesakako Zabaleta jauna mendi horretaz, Udalarekin

egindako kontratu baten bidez, nola eta zergatik garbi ez dakigu, nahiz eta Herriak ureta bazkatarako eskubidea mantendu duen orain

arte. Duela berrogeita gehiago urte, herriak izan zuen erosteko aukera baina orduko Beintanak ezezkoa eman zion erosteari.

## Haurrentzako arratsalde gozoa

Aurten ere Larraburu elkartek gozoz ase zituen haurrak Errege egunean. Txokolte, pastel eta zozketako besta herriko akordeolari eta trikitilarien soinuk lagundu zion, oroitzapen ona jasotzeko moduan.

## Partxis txapelketa hasi da

Urtearen lehen egunean eman zitien sariak Larraburu elkartek mus txapelketako irabazleei. Urtearen 2. igandean hasi da partxis txapelketa bertan. Zortzi bikotek hartzen dute parte, utarril eta otsailez luzatuko den joko ariketan.

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA  
Tfnoa: 637127  
**LESAKA**

**JOSEMA RAMOS**  
*Zolak akutxilatuta eta barnizatzen dittut*  
© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

LORA DENDA  
**TXAIRULA**  
Bitria LESAKA  
627542  
bitxikeriak • opariak • eskulangintza

**HERRIKO OSTATUA**  
**Jatetxea**  
*Lagun artean goxo-goxo egoteko leku egokia*  
© 635290  
**ETXALAR**

**HARITZE**  
**JATETXEA**  
KAXULAK • GOSARIAK • BAZKARIAK  
*Sukaldaritzarik hobereana xokorik politenean*  
GurutzeEtxea - Jauregieta auzoa - © 635038  
• ETXALAR (NAFARROA) •

**Igantzi**

# Hameka igantziar joan zitzaizkigun 1994an

Hiru milioi pezetako dirulaguntza hartuko du udalak Baratzondoko lur eremua erosteko

**OSKAR TXOPERENA**

1994aren laburpe-  
na egiten hasiz gero,  
nahitanahiezkoa izan-  
en dugu hameka her-  
ritar hil zaizkigula ai-  
patzea. Hauek dira be-  
re adinarekin: Nicolas  
Txoperena (79), Jose  
Urtxegi (85), Angel  
Mendigutxia (74), Fer-  
min Otamendi (97),  
María Irazoki (89),  
Bitoria Migelena (89),  
Bizente Sein (88),  
Alfonso Etxeberria  
(82), Sebastiana  
Bergara (86), Bizente  
Altzuri (75) eta Pilar  
Iturbide (80).

Kopuru izugarria da  
eta ikusten den beza-  
la, adinekoak ziren  
guztiak, 74 eta 97 ur-  
te bitartekoak. Jaio ber-  
riz, lau bertzerik ez  
dira egin eta akautze-  
ko, hiru herritar ez-



Erregeak zuzen etorri ziren urtero bezala, eguraldi txarrari kasurik egin gabe. Akautu dute, bertzalde, kanposantuko bideen moldaketa. Orain hilobien jabeen esku dago txukun edukitzea

kondu zaizkigu eta hi-  
rurak kanpora joan di-  
ra bizitzera.

**Terrenoa erosteko dirulaguntza**

Hiru milioi pezeta-  
ko dirulaguntza eman

dio Nafarroako Go-  
bernuak Igantziko  
udalari, zaharretxea  
eta kirol eremua egi-  
teko erosi zuen terre-  
noa ordaintzeko.  
Laguntzak, balioaren  
heren bat suposatzen  
du gutti gora behera.

**CANi eskaera**

Udalak berriz ere  
eskatu die CANekoei  
bulego berriko teila-  
tuko hegatzak arau  
subsidiarioak dioten  
bezala, egurrez estal-  
tzea. Bigarren eskaki-  
zuna da oraingoa.

**Irakasle berria**

Asun irakaslea  
ikasturtea akautu arte  
zenbait ikasketa egi-  
tera joan da. Goi-  
zuetarra da bere hu-  
tsunea betetzera eto-  
rri dena: Mari Jose.

**XATURETXEA**  
  
**JATETXEA**  
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

**SAROB**  
**okindegia**   
**SANDERS Pentsuak**  
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

**SASKI**  
**OSTATUA**  
LESAKA

**koxkonta**  
  
Sagardolegia zabalik larunbatetik aitzinera  
Deitu erreserbak egiteko  
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

**ESTHER ATEAK, C.B.**  
  
Zarandia 9, ☎ 627584 - LESAKA  
☎ (943) 610319 - IRUN

- ➔ Farket flotantea
- ➔ Tarima
- ➔ Kortxoak
- ➔ Ate korrederoak dituzten armarioak
- ➔ Paretan sartzeko armarioak

**Arantza**

# Salbatoreko lur eremua erosiko dio udalak Bakedanori

Bertzalde, Errege egunean Larretxea eta Mindegiaren arteko aizkol apostua eta txingen errekorra egin ziren

GARBINE ETA ELIXABET

Salbatoreko terrenoa Jose Luis Bakedanori erosiko zaio, 630.000 pezetatan. Horietatik Nafarroako Gobernuak 441.000 pezetako dirulaguntza emanen du. Bertako bidea ere gaizki dagoela eta Nafarroako Gobernuak moldatzeko baimena eman du. Arkitektoa dokumentazioa prestatzen ari da, geroago udalak aztertuko du gastuak nola ordaindu. Dena prestatutakoan, udalak etxetara agiriak bidaliko ditu, lur berriak hartzeko nor dagoen interesatua jakin asmoz.



Udalak Jose Luis Bakedanoren lur saila erosteko erabaki hartu du  
Arg.: Artxiboa

Arantzaraino. Eguraldi txarrarekin ez ziren baxterez beldurtu. Elizan erregaloak banatu zituzten eta haurren aurpegieta zoramena nabaritzen zen. Bihara-

monean, urtarrilaren 6an, berriz, Errege Eguna ospatu zen. Lizaso eta Sorozabal izan genituen bertsolari. Aizkoran Donato Larretxea eta Mikel Min-

degia aritu ziren mano-mano eta arantzarrak irabazi zuen. Patxi Bergarak ezin izan zuen 200 kiloko txingekin errekorra hautsi, gaixorik bai-

tzegoen, baina bere ordeztu Luis Elizondok errekorra egin zuen, nahiz eta ofiziala ez izan. 41 metrotan paratu zuen errekor berria, lehen baino hamaka metro gehiago. Udalak, plaka bat eman zion Luiseri eta honek bere familiari eta batzez ere, gaixorik duen arrebari eskeini zion.

## Pagoak Ekaitzan

Bi mila pago planta landatuko dituzte herriko langileek Ekaitzan; Erkatzan eta Soranon.

## Dirulaguntza kontsultarako

376.390 pezetako dirulaguntza hartu du mediku kontsultak, funtzionamendu gastuak ordaintzeko.

**LABEZAR**  
© 631076 • BERA

**ALBERGEA JATETXEA**  
© 634179  
**ARANTZA**

**LANCHAS**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera © 630735  
Irun © (943) 622305

**AYLA ARGAZKINTZA**

- Estudioa
- Erreportaiak
- Ezkontzak
- Argazki materiala
- Fotokopiak
- Bideoa
- Markoak

**Bixente Taberna Legia karrika n° 4 BERA © 630597**

Irungo errepidea - BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

ATERATZEA eta LANTZEA

|               |            |
|---------------|------------|
| Antzinaldeak  | Tximiniak  |
| Angeluak      | Erlaizak   |
| Orma antzinak | Moldurak   |
| Leihoak       | Zokaloak   |
| Ateak         | Hilarriak  |
| Arkuak        | Marrazkiak |
| Pilareak      |            |

'Abujardada' Zahar antzekoa Macizoa Txapetaua

**ZINTARRIAK ADOKINAK ZOLAK**

**Sunbilla**

## Iñauteriak urtarrilaren 27tik 29ra ospatuko dira

Ortziral eta larunbatean puxkak bilduko dira eta igandean izanen da karrozen desfile ospetsua

IXABEL ETA JOSUNE

Aparteko gehigarrian Sunbillako Iñauterien berri zehatza goa izanen baduzue ere, aipatu behar da aurten urtarrilaren 27tik 29ra ospatuko direla, hau da, ortziraletik larunbatera.

Ortziralean, puxkak biltzen ibiliko dira baserriz baserri, Ulibeltzak elkartean gosalduta ondotik. Arratsaldean haurrentzat txokolatada eta ondotik, dantzaldia eta emakumeen afaria. Larunbatean, gosari, bazkari eta afarietaz gain, maskara-dantza izanen da.

Igandean izanen da karroza desfile famatua eta frontoian zerri eta bildots bat zozke-



Umorea ez da faltatuko aurten ere Sunbillako Iñauterietan. Piraten barkuak sorpresa eman zuten bezala bertze sorpresak espero dira.

### Errege bezperako ohiturak berreskuratuz

Errege bezpera egunean, aspaldiko urteetan, herrian barna joareekin ateratzen ziren kuadrilak gauerdialdera. Azken urtee-

tan galdua zen ohitura hori, baina aurteangoan adin ezberdinetako zenbait pertsona ateri dira, joareen soinua lagun zutela.

Aurten izan duten arrakasta ikusirik, hurrengo urteetan ere ohitura hau berreskuratzeke saioa egingen dute seguraski.

### Futbol-sala txapelketa

hasia da dagoeneko. Partiduak ortziral, larunbat eta igandetan jokatzen dira. Aurten hamasei taldek eman dute izena.



## SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

## IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE



## TELLETXEA MOBLEAK

### Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziondo, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin

*Koltxoia aldatzeko aukera berezia aprobeitza ezazu.  
1. kalitateko koltxoia oso prezio interesgarrietan.*

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

**Doneztebe**

# 'Memorial Ezkurra' txapelketa heldu den astean hasiko da

Txaruta pilota elkarteak antolatzen du memoriale



Koteto Ezkurra Memorialeko joan den urteko irabazleak

TXEMA ETA KARMELO

Heldu den astean hasi eta martxoan akituko den 'Memorial Ezkurra' pilota txapelketa 6 maila ezberdinetan jokatu da, prebenjamin, benjamin, alebin, infantil, jubenil eta helduetan. Baztan-Malerrekako Txaruta pilota elkarteak antolatzen duen txapelketa hau idekia da eta apuntatu nahi duenak aski du frontoira jotzea astelehen eta ortzegunetan, 6,30etik 8,30etara eta izena ematea pilota entrenamenduak zuzentzen duenari. Iaz 160 pilotarik parte hartu zuten txapelketa honetan.

Txaruta elkarteak, Memorial Ezkurraz gain, Baztango txapelketa antolatzen du eta Euskadiko txapelketan parte hartu ere. Txaruta 1993ko urrian sortu zen, Baztan eta Malerrekako Mendaur pilota eskolak bat egitean. Euskadiko txapelketan aritzea eta el-

karrekin arazoei atarabide egokia bilatzea, Zuzendaritza batzordea haundiagotzean izan ziren bat egitearen arrazoiak. Iaz junior mailan txapela lortu zuten Euskadiko txapelketan eta aurten ere 19 pilotari ari dira txapelketa hori jokatzeko (6 kadetetan, 4 jubenetan, 3 juniorretan, 3 seniorretan eta ber- te 3 palan).

## Apostu bitxia prest dago larunbat honetarako

Guttitan ikusteko moduko apostua egiten da larunbatean, hilak 21, arratsaldeko 4etan. Alde batetik, Julito eta Patxi Ordoki eta bertetik, Pedrito Mailin eta Jose M<sup>a</sup> sekretarioa. Apostua, Doneztebeko trenbideko zubitik Sunbi-

llara joan eta etorri, laisterka, oinez edo ahal duten bezala. Dirua botaria dute eta hoberena, 60 urte dituzten bi hauek (Jose M<sup>a</sup> eta Pedrito) sasoi eta lehia bizian ikuste, azken orduan gibelera ez badute jotzen behinik behin.

### ttipi-flash

- ❖ **Kafetegi-goxotegi**  
berria ideki berri dute Donezteben Almandozko Beola-koak. Beola izena paratu diote, eta pastel eta bertzelako gozokiez gain, taberna eta janaria ere ematen dute.
- ❖ **Kinielan jokatu**  
eta oraingoan Donezteben dauden guardia zibilei tokatu zaie, 30 milioi gainera.
- ❖ **Ebasketak**  
ugaritzen ari dira eta oraingoan Askin tabernan izan zen. Bertako bi gazte izan direnaren zurrumurrua zabaldu da herrian. Gazte hauen lagunak ere deiak izan dituzte, norekin dabilzan kasu emateko erranez. Gazteek nota bat atera dute, euren ebatsi dutenik gezurtatuz.

## FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



**MALDAERREKA, S.L.**

24 ordutako zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik  
edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA



## AMEZTIA Jatetxea - Hostala

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan  
Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

## BELARRA Kafetegia

*Plater Kombinatua*

Amezti 3, Tf. 45 03 06 • DONEZTEBE

**Malerreka**

# Kontsuluten funtzionamendurako dirulaguntza eman du Gobernuak

Ia bi milioi hartuko dituzte Malerrekako herrietako kontsultek

MALERREKA

Doneztebeko Oinarritzko Osasun zonaldearen barnean dauden Malerrekako herrietako kontsuluten funtzionamendu gastuetarako 1.995.133 pezetako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak, Calixto Ayesa osasun kontseilariaren agindu baten bidez.

Dirulaguntza ematerako orduan, kontsulta nolakoa den eta zenbat metro karratu dituen hartu da kontutan. Honela, Elgorriagak 176.680 pezeta jasoko ditu, Era-



Saldiasako kontsultak 176.680 pezeta jasoko ditu

Arg.: Artxiboa

|                   |                    |                      |
|-------------------|--------------------|----------------------|
| tsunek 232.208,   | Labaienek 252.719, | Urrotzek 186.776 eta |
| Ezkurrak 186.776, | Saldiasek 176.680, | Zubietak 191.824 pe- |
| Iturenak 349.505, | Sunbillak 241.965, | zeta.                |

## Iñauteri giro eroan murgiltzeko prest Ituren eta Zubietan

Hilabeteko azken astelehen eta asteartea izanen dira, urtero bezala egun nagusiak

TTIPI-TTAPA

Joare soinuaz beteko dira hilabete bukeran Ituren, Aurtiz eta Zubietako karrikak. Izan ere gainean ditugu iñauteriak eta hor ibiliko dira herriotako joaldunak elkarri bisitak egin eta bueltatuz. Iturenen aitzineko ortzegunean hilko dute Labaienen erositako zokorra. Astelehen eta asteartean giro aparta izanen da, urtero bezala, bisitari aunitz espero baitira egun horietan.



Benga motel, Iñauteriak ez direla leihotik begira gelditzeko

### Mankomunitateko bulegoen garbiketa subastara

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitateak subastara atera du bere bulegoen garbiketarako egiteko zerbitzua. Instantziak aurkezteko epea urtarrilaren 31a arte zabalik izanen da. Baldintzak eta informazio gehiagoren berri izateko, Malerrekako Mankomunitatearen telefonoan (451746 bulego orduetan) edo bertako Herriko Etxeetara joan behar da.

*ttipi-flash*

### Donamaria

Golbaiko pista joan den urtea akitu baino lehen hasi ziren egiten. Martxa onen hasi baziren ere, azken aste hauetan elurak estali egin du pista, lanean segitzea galeraziz. Elurra desagertu bezain abudo segitzeko intertzioa dute.

### Euskara

ikasi edo hobetu nahi duenak matrikula epea zabalik du hilbeltzaren 26a arte. Informazio gehiago nahi duenak aski du Malerrekako IKA euskaltegira joatea edo 451555 telefonora deitzea.



**Ituren**

## Unai Apeztegia pilotari aurtiztarra txapeldun

ETB eta DVk antolatutako txapelketan maila ona erakutsi du herritarrak

**IBAN ISASI**

Unai Apeztegia aurtiztarrak eta Aritz Berraondok osatutako bikoteak ETB eta Diario Vasco egunkariak antolatutako txapelketa irabazi zuten (22-16) urtarrilaren 9an Zarauzko pilotalekuan burututako finalean. Urretabizkaia anaiek osatzen zuten aurkako bikotea.

Zorionak Unai eta segi bizkor pilotari jotzen.

### Kultur Egunak

Urteberriarekin batera Kultur Egunak ospatu ziren Ibintza kul-



Gainean ditugu iñauteriak

tur elkarteak antolatuta. Erakustaldia eguneroko El Salvadorreko

irudi gogorrek argazkietan eta opariak egitekoko denda koxkor bat.

Talojate jendetsua eta Bittor Aiaperen kontzertu txalogarri bezain

harrigarria. Haurren pastelak izugarri onak sukaldari on baten eskuari esker. Guzti hau orain, eta urtean barna bertze zerbait egiteko asmoa ere badago. Horretarako, hain zuzen, eta ekitaldi hauek debalde edo arras merkeak izateko ikuslearentzat, karrikara dabiltza hainbat errifa saltzaile. Zozketatzen diren erregulak musika minikate bat lehen sari bezala eta mendi bizikleta bat bigarrenik. Animo eta erosi akitu baino lehen eta zorionak antolatzaileei.

**Zubieta**

## Euskara bultzatzeko zenbait ekitaldi eginen ditu udalak

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kide bezala laguntza emango du horretarako

**AINHOA MUTUBERRIA**

Zubieta UEMAn (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) sartu denez udalak bere laguntza ematen du herrian bertan ekitaldi batzuk antolatzeko. Hauek hiru izanen dira. Lehenbizikoa, euskara klaseak emateko asmoa dago, berdin du zein urratsetan, kuestioa da nahiko jende interesatzea apuntatzeko. Bertsozaleek bertso teknika berriak ikastea ere posible izanen dute. Ea nor ani-



UEMAren partaide da Zubieta

matzen den! Gai hauei buruz, etxez etxe banatuko da informazioa. Eta bukatzeko herriko ixtorio zaharrek bildu nahi dira, zinta batetan euskara klasetan emateko eta posible izanen balitz, material honekin liburu bat argitaratzeko.

Orokorrean jendeak ez du asko parte hartzen horrelako ekitaldietan, baina helburua gure hizkuntza mantentzea eta lantzea denez, ea animatzen den.

Goizueta

## Hautsi dira aspaldiko markak jaiotzei dagokienez

Hamabi haur jaio ziren 1994ean, aurreko urtekoa bikoiztuz

ESTEBAN AROZENA

Jaiotze tasari dagokionean behintzat arrunt ona bezala izendatu dezakegu 1994. urtea, 12 haur jaio baitira herrian, aurreko urteko kopurua bikoiztea lortuz horrela.

Gutxienez azken hamaika urteotan ez dira hainbeste haur jaio Goizuetan. 1982az geroztik iaz arte eta urtez urteko ordena mantenduz, 10, 7, 11, 7, 6, 8, 7, 4, 11, 11, 7 eta 6 haur izan dira jaiotakoak. Hauetatik 57 mutikoak dira eta 50 neskek. Iazkoan ere ezin hobekiago eutsi zaio naturaren orekari, aipaturiko dozenan erdik eta erdik baitira



Gero eta haur gutxiago eskolan

neskak eta mutikoak.

Datu hauekin zerkusirik izan dezakeelakoan, azken hamaiki urteotan herriko eskoletako matrikularioaren kopuruari begirada bat eman diegu. Hemen zenbakiek egoera larri bat adie-

razten digute, 1983an lehenengo mailatik zortzigarrena arte 153 ikasle baitzituen eskolak eta aurten berriaz, 69. Grafiko honetan ez da goraberarik, beherako joera etengabe bat baizik. Hemen ere, 1983tik



Anatxuriko zubia moldatzen hasi dira. Itxura berriarekin ikusiko dugu laister

hasita urten ordena mantenduz, hau da ikasleen kopurua: 153, 137, 131, 117, 109, 100, 93, 87, 79, 77, 73 eta 69. Ez da esan beharrik noski, aranoarrak ere sartuak daudela emandako datu hauetan.

### Anatxuriko zubia

Argazkian erdi erria ikusten den Anatxuriko zubi edo dena delako hori ederki itxuraldatuko da laister, hasiak baitira bihurgunea kenduko duten obrak.

Areso

## Loteriak diru pixka bat utzi du herriko elkarteetan

Pake-Toki elkarteak 17. urtemuga ospatu du egunotan

JUANA MARI SAIZAR

Loterian 300.000 pezeta jokatu ziren eta jokaturako pezeta bakoitzeko sei pezeta jasotzen dira Pake-Toki elkarteetan. Larrea elkarteetan berriz, bost pezeta jokaturako pezeta bakoitzeko.

Bestalde, Pake-Toki elkartearen baztar nagusian sokatira taldeari 82.000 pezeta ematea onartu zuen. Errege egunean umorez betetako afa-



ri bat egin zuten 17. urtemuga ospatzeko. Mustxapelketa ere an-

tolatu dute eta otsailaren 25ean semifinallak eta finalak jokatu-

Eguberrietan kantuan ateratako diruarekin sokatirako soka erosi nahi dute herriko neska-mutikoek

Arg.: Juana Mari

ko dira. Bukatzeko afaria eta sari bana-keta egingo da

### Ikasteko teknikak

izeneko ikastaroa antolatu da 12 urtetik gorako haurrentzat. Larunbatetan hiru orduz ari dira urtarrila eta otsailean.

### Errepidea...

konpondu ondoren udalak kotxe aparkamenduak debekatu du Peruneko zubitik hasita Palazioraino, bi aldeetan. Sastinetik hasita Otxontxikiraino norabide bakarreko ibilbidea izango da.



# Ihauterietako umorea larunbatean hasita asteartera arte

Igandean, Leitzako Euskaltegian antolatutako bertso saio ederra entzuteko aukera izanen da zinean

JOSEBA AZPIROZ

Larunbatean, hilak 21, hasi eta asteartera arte Ihauteri giroa biziko da Leitzaan.

Larunbatean gazteak etxez etxe ibiliko dira eskean eta gauez atsoguratuen afaria izango da. 11,30etan kontzertua Dorrean.

Igandea bertso eguna izango dugu, arratsaldean IKAk antolatutako saioa eta gauez bertso afaria izango baita Aurreran. Astelehen eta asteartean auzoetan eskean ibiliko dira gazteak eta bazkaria Aurreran. Astelehenean haurrentzat parke mugikorra antolatuko da. Egutero Incansables txaranga arituko da eta igandetik asteartera Gaubela taldea plazan.

## Laburmetrai lehiaketa

Leitzako zinemako filmeen emanaldiak duten arrakasta ikusirik, Andoaingo zine eta bideo eskolako ikasle talde batek laburmetrai lehiaketa antolatu du, oinarri hauekin: lan guztiak zortzi eta hamabi minutu artekoak izan behar dute eta euskaraz



Candido Iñauterietan

## IKAk antolatutako bertso saioa igande honetan, arratsaldeko 7etan

Igande honetan, urtarrilak 22, arratsaldeko 7etan, zineman bertso saio bikaina entzuteko aukera izango da, Leitzako Euskaltegiak (IKA) antolatua. Iñauterietako igandea dela aprobeztatzuz bertan, Unai Iturriaga, Andoni Egaña, Xebastian Lizaso, Iñaki Murua, Maddalen Lujanbio eta Esti-



txu Arozena izango dira. Ondoren ere, bertso giroa ez galtzeko, bertso afaria izango da Aurreran. Bertso saiorako txartelak 800 pezeta balio dute eta afarikoak berriz, 2.500 pezeta eta Oialde, Txoko, Gaztañaga eta Torrea tabernetan daude salgai.

Umore onez gozatu!!!

eta VHS sisteman eginak. Bideolan guztiak, aipatutako eskolan aurkeztu behar dira martxoaren 20a baino le-

hen. Irabazten duen laburmetraiak 50.000 pezeta eramango ditu, bigarrenak 25.000 eta hirugarrenak 10.000

pezeta. Apirilaren 9an, Leitzako zineman emitituko dira lan guztiak eta sari banaketa egun berean egingo da.

## ttipi-flash

### ❖ Udalak mailegua eskatu du

Udalak beste 60 milioiko mailegu edo prestamo bat eskatu du, zorrei aurre egiteko. Hauekin 337.341.460 pezeta zor ditu maileguetan.

### ❖ Espaloiak

Patxi Arrazolako espaloia Asfaltos de Biurrun enpresak egingo du ia 6 milioi pezetatan (zehazki 5.998.538). Espaloia, gora goazela ezkerretik egingo dute.

### ❖ Gazte

**Asanbladarako** anagrama lehiaketa Juan Maritorea "Uxal"ek irabazi du behean dagoen lanarekin. Antolatzailerak jendearen partehartzea eskertu dute.



### IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

### GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritia, erreuma
- Artrosia, Lumbalgia
- Bihurdurak, etab...

**MAGNETISTA**  
623055  
**NATUROPATA**

San Marcial, 7-4 IRUN

### ONDORIOETATIK INDARTZEKO

- Diabetia
- Asma
- Larru azaleko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oinen izerdia
- Prostata, etab...

**KONTSULTA ORDUTEGIA**  
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldean 2-7etara. Ordua eskatu

**ttipi-ttapa**

5.900 harpidedun  
20.000 irakurle

**Baztan**

# 50 neska-mutikok parte hartu zuten Eguberrietako txapelketetan

Santiago Guraso elkarteak antolatua, billar, futbolin eta mahai-tenisean aritu ziren

**JOSEBA IGARABIDE**

Santiago Guraso elkarteak Eguberrietan antolatutako txapelketan barrenean:

**•Mutikoak:**

*Billarra:* 1. Raul Garate. 2. Iñigo Indurain. 3. Javier Maia.

*Futbolin:* 1. Iñigo Hervás eta Iñaki Bidarte. 2. Jon Garmendia eta Mikel Habans. 3. Josu Sanz eta Jesus Uriz.

*Ping-Pong:* 1. Mikel Habans. 2. Josu Sanz. 3. Iñigo Indurain.

**•Nesketan**

*Billar:* 1. Enara Mixeltoarena. 2. Amaia Olondriz eta 3. Sandra Pikabea.

*Futbolinean:* Idoia Sobrino eta Karmele Gomez. 2. Nerea Lizasoain eta Enea Arretxea. 3. Maite Plaza eta Sandra Pikabea.

*Ping-pong:* 1. Maite Plaza. 2. Enara Mixeltoarena. 3. Karmele Gomez.

Guztira 50 gazte-txok parte hartu zuten.

**Aste Internazionalista**

Baztandarren Biltzarren Gazte sailak antolatuta Aste Internazionalista burutu da hilaren 9tik 15era. Latinoamerikako liburuak izan ziren liburu-tegiaz. Arizkunenea Kultur Etxean berriz, Guatemala eta El Salvadorrerri buruzko erakusketa burutzen ari da hilabete osoan. Yugoslabiari buruzko irratsaioekin ziren,



Hilabete hasierako ekaitz eta haizeen ondorioz errepitidorea erori ondotik egun pare batez emititu gabe egon zen Xorroxin irratiak. Oraindik ere zenbait arazo daude Bortziriak aldean aditzeko, baina laister moldatuko omen dira

Arg.: KARMELE

**Euskadiko sokatira txapelketaren kanporaketa Elizondon otsailaren 4an**

Otsailaren 4an (larunbata), arratsaldeko 5etatik aitzinera burutuko da Elizondoko frontoian Euskadiko sokatira txapelketaren kanporaketa bat, 600 kilotik behitiko kategoria. Partehartzai-

leak bi taldetan banatuko dira. Lehenengoa Amaiur, Artzeniega, Auzolan, Larraun, Harizkozubi, Barrundia eta Torrekolanda B arituko dira. Bigarrenean berriz, Torrekolanda A, Abadiño,

Haitzazpe, Badaiotz, Mutriku, Gaztedi eta Auzolan-Igeldok tiratuko dute.

Frontoian hezetasun sobera bada, politikoldegian egingen da kanporaketa, antolatzaileen erranetan.

ruak izan ziren liburu-tegiaz. Arizkunenea Kultur Etxean berriz, Guatemala eta El Salvadorrerri buruzko erakusketa burutzen ari da hilabete osoan. Yugoslabiari buruzko irratsaioekin ziren,

baita mahai-ingurua eta diapositiba emanaldiak ere. Ekitaldiak larunbateko besta latinoamerikarrarekin akitu zen. Ortzirale honetan, hilak 20, IHESari buruzko hirtaldia emanen du

Sare taldeak. Eguberrietako futbol txapelketari dagokionez, 16 taldek parte hartu zuten. Gizonetan Ttitta taldeak irabazi zuen eta nesketan Basaburuako taldeak.

*ttipi-flash*

**❖ Etxeak berritzeko**

2,5 milioi pezetako laguntza eman du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultur kontseilariak. Balio historikoa eta artistikoa duten etxe horien artean, 2 milioi pezetara eman dira Erratzuko aduana moldatzeko.

**❖ 192 ikasleren garraioa**

ordaintzen laguntzeko 3,6 milioi pezetara eman dio Nafarroako Gobernuak Baztango udalari.

**❖ Xorroxin kontzertuak**

Urtarrilaren 28an, gaueko 11etan kontzertua izanen da Erratzuko Etxelebertzeko Txokoan. Xorroxin irratiak antolatutako jaialdi honetan, Balerdi-Balerdi, Morau eta Xabier Montoiak parte hartuko dute.

**❖ Xorroxin**

irratiak egun pare batez emititu ezinik egon da, ekaitz baten errepitidorea bota baitzuen.

**GA SAKAITZ**  
fontanería calefacción

Empresa colaboradora de **REPSOL**

**Era guzietako instalazioak: Etxekoak, industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

**Gierresenen**

**OSTATU - JATETXEA**  
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • OROÑOZ-MUGAIRI

**Baztan**

## San Antoneko besta asteartean ospatu zen

Baztanen egindako produktuen dastaketa izan zen Gaztanberaren Kofradiaren eskutik

PABLO MENDIBURU

Urtero bezala, urtarrilaren 17a egun handia izan da Baztango nekazariendako, San Anton eguna ospatu baitzuten. Goizez Baztanen egintako produktuak dastatzera eman ziren. Hameketako herrikoia Elizondoko frontoian izan zen, Gaztanberaren kofradiak antolatua. Eguerdian bertsolariak eta txistulariak izan ziren eta ordu batak aldera urteroko zozketa. Goizean zehar karrikaz karrika pasiatu zuten behi ederra, zerria eta bildotsak zozketatu zituzten. Jendearen partehartzea handia izan da, zozketaren dirua Erresidentziarako baita.



Zerri hiltzearen garaia dugu. Argazkian Oierregiko Mokotondoa baserriko zerri ederra hil eta garbitzen ari dira

Argazkia: D. Noticias

### Suak Almandozko Ariztizelai baserria kixkali zuen

Almandozko Ariztizelai guztiz kixkalia gelditu zen Urtezahar gauean, 2ak aldera gertatutako sute baten ondorioz.

Zorionez, Elias Alzuarte eta M<sup>a</sup> Jesus Inda nagusiak eta bi semeak etxetik kanpo zeuden. Mugairi eta Iruñako

bonberoak ailegatu zirenerako sua itzalia bazegoen ere, baserri barnean zeuden 20 edo 25 behiak bizirik ateratzea lortu zuten.

*ttipi-flash*

### ❖ Margo erakusketa

Urtarrilaren 2tik 27ra, Lucia Belzunezi margolariaren lanak ikusgai egonen dira Arizkune-ne Kultur Etxean.

### ❖ Odol emaileen besta

Joan den igandean ospatu dute Elizondoko eskualdeko odol emaileen besta.

### ❖ Iruritako Aranabia txapelketa

Joan den igandean jokatzekoak ziren Iruritako Aranabia pala motzeko txapelketaren finalak. Lehenik, 3. eta 4. posturako norgehiagoka, Osakar-Huarte eta Zalba-Alfaro artean. Finalean, Zozaia-Telletxea lesakarra k Martin eta Antton Ibarraren kontra aritzekoak ziren.



**Frutondoak eta Landare Ornamentalak**  
**Zuzeneko Salmenta**

MINDEGIA eta BULEGOAK

Sutegia Etxea

**31795 LEKAROTZ**

☎ (948) 58 11 01

Faxa: (948) 581101

**ARLA**

**ARDOTEGIA**

Ardoak • likorrak • freskagarriak

Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66 • ELIZONDO

**IPINGI**

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

**MERKEALDIAK**

|           |         |
|-----------|---------|
| Berokiak  | 6.900.- |
| Jertseak  | 2.950.- |
| Galtzak   | 4.720.- |
| Txalekoak | 2.500.- |
| Bodiak    | 3.700.- |
| Txaketak  | 3.450.- |

**Txandalak erdi prezioan**

**Teletan ere aukera berezia**



ZURE ARGAZKIAK ORDU BATEAN EGITEN DITUGU

EZKONTZETAKO ERREPORTAIAK

IA 100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALITASUNA ESKEINIZ

ELIZONDO  
Tel. 58 01 55

DONEZTEBE  
Tel. Fax. 45 08 25



Sara

# 'Urtxintxak' nesken eskubaloi taldea xapelgoan ari da

Otsailaren 25 eta 26an ospatuko diren Ihauterietarako prestatzen hasi dira herriko gazteak

MIXEL ETA JACQUELINE

Bigarren urtea da Sarako Urtxintxak nesken eskubaloi taldea ari dela, baina lehen aldia da xapelgoan parte hartzen duela "Promotion" (maila apalenean) deitzen den mailan.

Helduetan 11 neska ari dira. Sei taldeetarik (Kanbo, Senpere, Danguin, Orthez, Urruña eta Sara) 5. burutu du eta hori bi partida irabazirik.

Xitoetan, 8 eta 10 urte arteko hamar haur ari dira. Benjamin mailan ere, hamar haur ari dira, 11 eta 13 urte artekoak. Haur guzientzat xapelketa orain hasten da.

Bulegoa osatzen dutenak berriz, hauexek ditugu:



Mendiondoko iturria herriko langileek apaindua

Arg.: Mixel

**Lehendakaria:** Marie Pierre Iribarren.  
**Lehendakari ordea:** Jacqueline Behoteguy.  
**Diruzaina:** Beronika Ithurria. **Idazkaria:** Christine Lissayou.  
**Entrenatzaile:** Bruno

Sarrosquy eta Isabelle Olano. Diru kuxaren betetzeko afari bat antolatzen dute Omordian urtarrilaren 21an. **Zazpiak Bat** elkarteak bere erregeak ospatu ditu urta-

rrilaren 7an Omordian atsal-askari baten inguruan. Hor bildu ziren lautan hogeit bat haur, buraso eta arduradun. Dantza azkar delako seinalea. Agian luzaz!

## Ahate jatea Gaztetxean

Urtarrilaren 9an 30 bat lagun bildu ziren gaztetxean ahateen jateko. Nolaz ahateak? Hau da ohidura zahar bat eta bestetan ahate jokorako erabiltzen diren ahateak jaten dira, zaldun eta hauen lagunen artean. Guillaume Fagoaga sukaldariak aski ongi prestatu omen zuen jakia.

## Ihauteriak

Otsailaren 25 eta 26an ospatuko dira. Ohituak diren bezala larunbata auzoz auzo eskean ibiltzeko galditua izanen da, aldiz igandeko ekitaldia plazan iraganen da. Egun hauen antolakuntza gaztetxeak kudeatzen du.

Gida 95



ttipi-ttapa

Baztan, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka eta Sarako PROFESIONAL, KOMERTZIO ETA LANTEGI guztien

## Gida Komertziala

- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala
- ✓ Profesional, komertzio eta lantegi guzti-guztiak bilduko dituena.
- ✓ Herriko eta aktibitateen arabera klasifikatuak.
- ✓ Urte osoan eta momentu guzitan kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa ezberdinekin

Eska ezazu informazioa konpromisorik gabe • © 63 11 88

**ERRATZU OKINDEGIA**

zure eguneroko ogia  
 © 453168 - ERRATZU



**ARMUA Jatetxea**

Zugarramurdiko karretera 3. Km  
 Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI



**ZUBIRIA MINDEGIAK**

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak

ARRAIOZ • NARBARTE  
 TfnoaK: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)  
 Faxa: 948-581274

Urdazubi

## San Anton eguna meza eta bazkariarekin ospatu da

Nekazariak Beotxea eta Indiano-baita jatetxeetan elkartu ziren

ALIZIA OLAIZOLA

San Anton egunean, ohitura den bezala, goizean meza izan zen eta ondotik bazkaria. Batzuk Indiano-baitan eta bertze batzuk Beotxean egin zuten bazkaria. Egun hontan nekazari andana biltzen da.

### Informatika ikastaroa

Urtarrilaren 10ean hasi zen, asteartero izanez klaseak udal-etxean. Bi talde osatu dira, arratsaldeko Getatik Setara eta arratseko Setatik 10etara. Ikastaro honen arduraduna, Iruñako enpresa bat da.



Orabidea auzoko lhauterietan

### Dantza ikastaldiak

Atsulai elkarteak konpondurik, urtero

bezala haurrak Ainhoarat joaten dira larunbat arratsaldetan dantza ikasterat.

### Ihauteak...

hurbiltzen ari dira. Orabidean Errege egunean eta biharamone-

an izan zirela, eskean ibiliz gazteak umore ederrean Joxe Angel akordiolariarekin.

Zugaramurdi

## Urte guzian adina heriotz izan ginuen abenduan bakarrik

Joan den urteari errepassoa eginez, sei heriotza, lau jaiotza eta ezkontza bat bertzerik ez da izan

KORO ETA MARGARI

Abenduan, 1994. urteko azkeneko hilabetean, gainetako hilabeteetan bezainbat lagun hil dira (3). Kontutan hartu behar da, urte guzian hil diren horietatik, bi ezik, bertze guztiek ez zituzten hirutan hogeitau urte beteak. Marka txarra da hori.

Hil diren sei horien ordean, lau jaiotza izan dira. Hau ere noski, ez da nahikoa.



Urte guztian ezkontz bat baizik ez da izan. Gutixko. Eskertu behar da bederen, gazteak herrian gelditzen zaizkigula lan arazoei aurre eginez.

Bainan gelditzen zaigu 1995garren urte berri hunek egoera hobetuko duelakoaren esperantza. Eta umorea ere gelditzen zaigu.

**Herritar gutiagorekin hasi dugu aurten urtea**

## EZKONTZAK

**Juan Aitor Arriola Zaldibia** eta **M<sup>a</sup> Dolores Larralde Zubieta**, Deba eta Lesakakoa, abenduaren 30an.

**Joseba Imanol Gaztelumendi Bikondoa** eta **Maite Astrain Antxorena**, Elizondo eta Huartekoa, urtarrilaren 9an.

## JAIOTZAK

**Jon Ander Zabaleta Telleria**, Leitzakoa, abenduaren 21an.

**Itxaso Goñi Porcas**, Doneztebekoa, abenduaren 24an.

**Ainhoa Astiz Goñi**, Lekarozkoa, urtarrilaren 5an.

**Maeva Etcheverry**, Sarakoa, abenduaren 30an.

**Jone Arzoz Gamio**, Urdazubikoa, abenduaren 27an.

## HERIOTZAK

**Luis Mitxelena Olaizola**, Goizuetakoa, abenduaren 3an, 81 urte.

**Lucia Alsua Zubiri**, Goizuetakoa, urtarrilaren 6an, 94 urte.

**Fco. Javier Olaetxea Telletxea**, Lesakakoa, abenduaren 30an, 50 urte.

**Carmen Vela Jorico**, Elizondon, abenduaren 30an, 87 urte.

**Maria Lasaga Goia**, Elizondon, urtarrilaren 3an, 80 urte.

**Jose Zubiri Uriz**, Elizondon, urtarrilaren 3an, 80 urte.

**Marcela Elizalde Sanzberro**, Lekarozkoa, urtarrilaren 5an, 75 urte.

**Ignacio Mutuberria Biurrarena**, Elizondon, urtarrilaren 6an, 76 urte.

**Eusebio Juankorena Irungarai**, Arraiozkoa, urtarrilaren 7an, 87 urte.

**Jeannette Tapia Goyetche**, Sarakoa, abenduaren 27an, 89 urte.

**Jeanne Lamothe**, Sarakoa, abenduaren 1an, 81 urte.

**Manolo Arburua Iparragirre**, Zugarramurdikoa, abenduaren 3an, 52 u.

**Sebastian Irazoki Laurenzena**, Zugarramurdikoa, abenduaren 20an, 70.

**Bartolo Etxenike Fagoaga**, Zugarramurdikoa, abenduaren 23an, 55 urte.

**Jesus Altzuguren Mikelperizena**, Berakoa, urtarrilaren 3an, 78 urte.


**Francisco Goikoetxea Zabala**, Are-sokoa, urtarrilaren 3an, 84 urte.

## 40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,  
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,  
4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat  
2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,  
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,  
aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,  
bidai agentzia bat, PVCko nahiz zurezko leiho eta ateak,  
hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak,  
etxe saltzaile bat...**

**Denetarik gauzarik hoberenak.  
Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.**

Centro Comercial



**LUIS  
MARIANO**

Irun



## BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta

Urgentziak .....088/061

**Osasun Zentruak**

Elizondo..... 452367 / 580235

Doneztebe ..... 450300

Lesaka ..... 637428 / 637336

Leitza ..... 510248 / 510573

**Nafarroako Ospitaleak**

Nafarroako Ospitalea .... 102100

SSko Urgentzi

Zerbitzua ..... 246750

Virgen del Camino

Erresidentzia ..... 109400

Gurutze Gorria ..... 226404

**Gipuzkoako Ospitaleak**

Irungo ospitalea ..... 614600

Gipuzkoako ospitalea .... 460299

Erresidentzia ..... 453800

**Anbulatorioak**

Irun ..... 630264 / 621106

**Anbulantziak**

Oitz ..... 450242 / 450342

**DYA**

Lesaka

(Larrialdiak) ..... (943) 464622

Doneztebe

(Larrialdiak) ..... 171717

**FUNERARIA**

Doneztebe ..... 637404

Elizondo ..... 580924

Lesaka ..... 637404

**Suhiltzaileak**

Oronoz-Mugairi ..... 592255

**Garraioak**

Bidasotarra ..... 631150

Baztanesa ..... 580129

Leitzarar ..... 515018

**Aberiak:**

Iberduero ..... 450335 / 450336



Negu parte honetan, iñauteriak dira gertaera sozialik nabarmenena han eta hemen. Herri batzutan lehenago eta beste batzutan geroxeago, iñauterien errosarioa kasik bi hilabete irauten ditu alderdi hauetan. Goian dagoen argazkia, Arantzako iñauteriei dagokio; eskuintaldean dagoena, berriz, Arizkun-goari.



Lagun hori:

Sagardoa egiteko sagarrondoien plantazioa indartzea da Nekazaritza arloko ITG-KTIk duen helburuetako bat, eta zentzu horretan esperimintatu duena eta dituen ezagupenak zabaltzen ari da aspaldiko urteotan.

Frutikultura kontuetan eta bereziki sagardoa egiteko sagarrondoetan interesatua zaudenez, azken berrikuntzetaz informatzeko bilera batera gonbidatu nahi zaitugu, eta bidenabar, produktoreak bilduko dituen elkarte bat sortzeko posibilitatea aztertzeraz.

Bilera hau...

**JUANSENEA**n izanen da (Doneztebe)  
**Urtarrilaren 19an**  
**15,30etan**

**NEKAZAL**  
**FORMAKUNTZA**

NAFARROAKO KUDEAKETA ETA TEKNIKA INSTITUTUAK

## DATUAK

❖ *Maika Ariztegi 22 urteko laisterkari iturendarra da. Lasaga auzoko Rosentzenean bizi da.*

❖ *Hamasei urtetan hasi zen laisterketetan parte hartzen. Pamplona Atletico taldean aritu zen eta azken bi urteotan Berako Gure Txokoako kidea da.*

❖ *Nafarroako cross txapelketa hiru aldiz irabazi du eta estatu mailan ere ongi moldatzen da espezialidade honetan. Iruñako Marathoi erdia behin irabazi du.*

❖ *Urtea akitzeko bi San Silvestretan parte hartu zuen egun berean.*

TESTUA:  
AITOR AROZENA

## Maika ARIZTEGI:

# «Entrenamenduetan nere gisara ibiltzea gustatzen zait»

### EGUN BEREAN BI PROBATAN PARTE HARTZEA EZ DA SOBERA GOGORRA?


San Silvestreak normalean laisterketa laburrak izaten dira, antolatzaileek jende aunitzek parte hartzeko prestatzen dute zirkuitoa. Ez da cross baten korritzea bezala eta azken bi urtetan, bi probetan hartu dut parte egun horretan eta ez da hain gogorra.

### ZER DELA ETA MUGITU ZARA IRUÑEKO CLUB BATETIK GURE TXOKOARA?

Hurbiltasunagatik batez ere. Iruñan lau urtez aritu naiz. Pamplona Atletico taldean batez ere pistarako entrenatzen nuen eta Iruñera mugitu behar nintzen. Azken bi urtetan Gure Txokoako kide bezala ari naiz laisterka. Berako taldean arituz, Iturenen bertan entrenatzen ahal dut eta aunitzez erosoa da. Hemen gainera ez dut entrenatzailerik eta entrenamenduak neronek prestatzen ditut. Nere airera ibiltzea gehiago gustatzen zait.

### ZEIN ESPEZIALIDADETAN ARITZEN ZARA ETA ZEIN DUZU GUSTOKOENA?

Gehien bat cross eta



Maika Ariztegi Gure Txokoa taldean ari da azken bi urteotan

marathoi erdietan aritzen naiz. Crossa normalean sei eta zortzi kilometro arteko karre-rak izaten dira, maldan gora eta behera eta asfalto eta lurra tartekatuz. Marathoi erdiak berriz 21 kilometroko probak dira, guztia asfalto gainean. Ni ma-

rathoi erdietan gustorago ibiltzen naiz.

### ZEIN IZAN DA ZURE GARAIPENIK INPORTANTEENA?

Nafarroako hiru cross txapelketa irabaztea inportantea da eta estatu mailan ere aitzinean ibiltzen naiz crosseko probatan. Bertze laisterketaren bat aipatzekotan, Iruñako Marathoi erdia behin irabazi nuen eta hemen inguruan, Sarako Kontrabandisten Laisterketa edo Lizu-

niagako Igoera irabazi ditut behin baino gehiagotan. Urtean zehar proba aunitan parte hartueta bakarren batzuk irabazten ditut.

### ETA AURTENGOAN ZEIN PROBATAN PARTE HARTZEKO INTENTZIOA DUZU?

Nafarroako cross txapelketa irabazten saiatuko naiz aurten ere. Gero eta kontraria gogorragoak ditut, baina txapela mantentzen eginahalak egingen ditut.

» *Aurtengo Nafarroako cross txapelketa irabazteko eginahalak egingen ditut. Kontrariak gero eta gogorragoak dira baina txapela mantendu nahi dut»*

# Unai Apeztegia iturendarra, ETB eta Diario Vascok antolatutako txapelketaren irabazle


Haritz Berraondo antzuolarrarekin batera 22-16 irabazi zien Bizkaiako Urretabizkaia anaiei urtarrilaren 8an Zarautzen jokaturako finalean

Apeztegia eta Berraondok eskuratu zuten ETB-DV txapelketa, Zarautzko finalean Urretabizkaia anaiei 22-16 irabazi ondotik.

Unai Apeztegia iturendarra ongi aritu zen gibelaldean, bi eskuen ongi moldatzen delako erakutsiz. Berraondo bere aurrelaria ere bikain aritu zen eta sakearekin zazpi tanto egin zituen.

Partidua nahiko errex bideratu zuen bikoteak (20-10 irabazten izan ziren) eta bizkaitarrek azken orduko erreakzioa izan bazuten ere, 57 minututan nagusitu ziren Apeztegia eta Berraondo. Nerbioz betetako partidua izan bazen ere, kalitate handiko jokaldiak ikusi ziren.

Aitzinetik, hirugarren eta laugarren pos-



Unai Apeztegiak (ezkerraldean) etorkizun handiko atzelaria dela erakutsi du ETB eta Diario Vasco egunkariak antolatutako txapelketan

turako partidua jokatu zen eta honetan ere bazen eskualdeko ordezkaritza. Alde batetik, Olaizola goizuetarra

eta Almandoz lesakarra ari ziren eta kontrario gisara Juantxo Apeztegia goizuetarra zuten, Okiñenarekin

batera. Emozioz betetako norgehiagoka suertatu zen eta bertan Olaizola eta Almandoz 22-20 nagusitu ziren.

## Baztango pilota txapelketaren finalak jokatu ziren

Urtarrilaren 7an jokatu ziren Iruritan Baztango binakako esku pilota txapelketaren finalak.

### Emaitzak:

*Aurrebenjaminetan:* San Jose-Urtasunek, 18; Arraztoa-Orbegozok, 7. *Benjaminetan:* Atxa-Altzugaraik, 18; Etxenike-Arraztoak, 14. *Alebinetan:* Jaurena-Rementegik, 18; Urrutia-Urrutiak, 10. *Infantiletan:* Bidaurre-Iriartek, 18; Eskudero-Nobeletak, 8. *Jubeniletan:* Altzugarai-Errandoneak, 22; Arantzeta-Barrigonek, 10. *Afizionatutan:* Leitza-Castrok, 22; Mikelperizena-Urrutiak, 11.

## Beti Gaztek irabazi zuen Jose Luis Larralderen omenez egindako 4. txapelketa

Beti Gazte futbol taldeko jubenilek irabazi zuten Jose Luis Larralde, Lesakako elkarte-ko jokalaria, entrenatzaile eta lehendakaria izandakoaren omenez Kristo-Enea futbol zelaiaren jokaturako laugarren txapelketa.

Lesakakoekin batera, Berako Gure Txokoa eta Baztango jubenilek aritu ziren, guztiek guztien kontra, hiru denboretako partidua osatuz. Lehenengo denboran Gure Txokoak 2-0 irabazi zion

Baztaneri. Bigarren denboran, Beti Gaztek 1-0 irabazi zion Baztaneri. Beraz, hirugarren denboran, lesakar eta beratarren arteko norgehiagokan erabaki behar zen aurtengo txapeliduna. 45 minutuak

0-0 emaitzarekin bukatu zirenez, antolatzailerak txapeliduna penaltietara jokatzea erabaki zuten.

**Orain artean kokaturako txapelketa guztiak irabazi dituzte lesakarrek**

Beratarrek ez zeuden konforme erabaki honekin, golen arabera beraiek baitziren aurtengo txapelidunak.

Halere, penaltiak bota ziren azkenean eta bertan lesakarrak nagusitu ziren, huts bakar bat ere egin gabe.

Azpimarratzekoa da, orain arte jokaturako lau txapelketak lesakarren eskuetara joan direla.

## Hamabostaldiko Jokaldiak



### Unai Apeztegia

Iturengo pilotaria. Iturendarrak ETB eta Diario Vascok antolatzen zuen txapelketa irabazteaz gain, etorkizuna bere eskuetan dagoela erakutsi du. Eskuina izan arren ezkerre ere ederki manejatzen du. Kilo batzuk galtzea ez dio kalterik egingen.

### Beti Gazte Lesakako

futbol talde nagusia Dagoeneko zazpi negatiboren jabe dira eta okerragoa, etxetik kanpo ez dute puntu bakar bat ere eskuratu lehen-dabiziko itzuli osoa jokatu ondotik. Espalibatu beharra dago multak, beranduegi izan baino lehen.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

#### ► Urtarrilaren 2tik

**27ra** Arizkunenea kultur Etxean Lucia Belzunegi margolaria- ren erakusketa. Astegunez 5,30etatik 8etara eta jai egunez eguerdiko 12etatik 2etara.

#### ► Urtarrilaren 30a

**arte** El Salvador eta Guatemalari buruzko erakusketa hilabete osoan zehar, Baztandarren Biltzarreko Gazteri sailak antolatua.

## HITZALDIAK

### ELIZONDO

#### ► Urtarrilaren 20an.

HIESari buruzko hitzal- dea, Sare taldeak emana. Antolatzailea: Baztandarren Biltzarren Gazteri saila.

## INAUTERIAK

### LEITZA

#### ► Urtarrilaren 21tik 24ra.

### SUNBILLA

#### ► Urtarrilaren 27tik 29ra

Xehetasunak erdiko gehigarrian.

### ITUREN-ZUBIETA

#### ► Urtarrilaren 29tik otsailaren 1era

Joaldunak, astelehen eta asteartean aterako dira.

# AGENDA PRAKTIKOA



## Txapiroei beteak bere tintan

### Osagaiak

• Kilo bat txapiro • 3 tipul • to- mate bat • baratxuri buru erdi bat • perrexil xorta bat • baso- erdi bat ardo xuri • txapiro tinta edo 4 boltsa tinta • 3litro bat arrain salda •

### Saltsa prestatzeko manera

Saltsa egiteko, zartagian litro

laurden bat oliba olioa paratu. Berotu denean baratxuriak, tipula, to- matea eta perrexila bo- ta. Pixka bat gorritu on- dotik, ardoa bota. Ardoa erretzean, bota tinta eta ondo- tik salda. Egina dagoenean 'pa- sapuretik' pasa bertze ontzi ba- tera.

### Txapiroiak

Garbitu ondotik bete, txotxa ba-



Mikaela GOÑI  
Iruribieta Jatetxea  
•SUNBILLA•

tez josi eta irinean pasatu. Zartagian prijitu, gero txotxa ken- du eta sartu lehendik prestatua dugun saltsan.

Utzi ordu erdi batez saltsa ho- rretan irakiten eta listo daude. On egin.



### ❖ ZERRIKIA ❖

• Zerrikumea (20 kilokoak): 6.300 pzta.  
• Zerri gizena (95-100): 160 pzta/kilo  
• Zerramak: 110 -120 pz- ta./kilo bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

• Aretze gizenak:  
• Idixkoak: Pzta/kg. Kanal  
Extra ..... 590  
1.koa ..... 570  
2.koa ..... 550

• Urruxak: Pzta/kg. Kanal  
Extra ..... 600  
1.koa ..... 570  
2.koa ..... 560  
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urru- xentzako.

### • Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):  
Nabarrak: urruxak 22.000 eta idixkoak 33.000 Pzta.  
Mestizoak: urruxak 38.000 eta idixkoak 52.000 Pzta.

### Behi zaharrak:

Behi nabar gizena: 420 Pzta./ Kg. Kanal. Behi gorri ona: 490 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA  
MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...



### ❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

• Bertako sagarrondoak 930.  
• Udareondoak 930 pzta.  
• Gereziondoak 1.050 pzta.



### ❖ BARAZKIAK ❖

• Piper txorizero zientoa 800.  
• Piper morro zientoa 800.  
• Piperminak zientoa 600.



# LEGARRA

Legarrea, 9  
☎ 63 70 30  
LESKA

⇒ DISKOAK 500 Ptan.

⇒ HILABETERO OFERTAK PAPERTEGI GAJETAN

- Inprenta lanak
- Enkuadernazioak
- Fotokopiak
- Fax publikoak
- Aldizkari eta egunkariak
- Liburuetan azken nobedadeak

Larunbata eta  
igande goizetan  
irekia

## Kasu merkealdiekin!

Merkealdiak ailegaten direnean, edozein gauza erosteko prest gaudela iduri du. Gauzek gutiago balio dute eta ezin hau edo beste erosteari amore eman. Karrikako, irratiko edo telebisitako publizidadeak inoiz baino gehiago erakartzen gaitu, normalean baino gogorragoa baita, eta gu berri, gero eta inoxenteagoak. 'Merkealdien borroka' delakoaren helburu bihurtzen gara eta nondik nora goazen eta nahi duguna zer den jakin gabe mugitzen gara.

Horregatik, hobe dugu azaleko itxuran sobera fidatu gabe merkealdiak zer diren eta dituzten abantailak ikastea.

### BI MOTAKO

#### MERKEALDIAK

• *Benetazkoak*, hau da, urtean barrena saldu diren artikulua berberak merkeago saltzen direnean.

• *Merkealdiak ez direnean*, hau da, merkealdi izenarekin kalitate gutxiko artikulua saltzeko aprobetxatzen denean.

Merkealdiei buruz hitzegiterakoan *Likidazioa*, *saldoa* eta *merkealdi* hitzen arteko desberdintasunak ezaugarri behar dira.

—*Merkealdia* (rebaja) ur-



Merkealdietan hobe da artikuluen azaleko itxuran sobera ez fidatzea eta zer nahi dugun ongi pentsatzea

tean barrena saldu den gauza bera merkeago saltzea da, saltzaileak denboraldia bukatutzat eman duenean. — *Likidazioa*, denda bat itxi behar dutenean, gauzak kendu nahian saltzen direnean.

— *Saldoa* gauza akasduak edo denboralditik kanpo gelditu diren artikulua saltzen direnean.

#### AHOLKUAK

Esan behar da merkealdiei buruzko lege zehatzik ez dagoela, eta Valentzia, Katalunia, Galiza eta Euskal Elkarrekin autonomoan izan ezik, gehiengoak kontsumoari buruzko lege orokorrean oinarritzen garena. Horregatik, aipatzen ditugun aholkuak inoiz baino garrantzitsuagoak dira.

• Nahiz eta zenbait dendetan erositakoa itzuli ezin dela esan, legeak dio akatsak dituzten artikulua aldatzea behartuak daudela.

• Ez ahaztu tiket edo faktura eskatzea, erreklamazioa egiteko beharrezkoa baita. Bertan agertu behar du erositakoaren balio osoa, hau da, BEZ edo IVA gehituz.

• Etiketa begiratu, erosi nahi dugun artikulua kalitate bertan agertuko baita.

• Arazorik ez izateko, hobe da erositakoa itzuli edo aldatzeko aukera ematen duten dendetara joatea.

Eta jakina, azkarrak izan benetazko merkealdiak diren edo ez bereizteko.

MIKEL BEZUNARTEA  
'IRATXE' NAFARROAKO  
KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA

# ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

### IRUÑA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40  
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitorenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

### ZINEA

#### DONEZTEBE

► **Urtarrilak 21-22.**

'Academia de policía, Mision Moscú'.

► **Urtarrilak 28-29.**

'Agarralo como puedes 33 1/3'.

#### LEITZA

► **Urtarrilak 27-29.**

'El cliente'.

### KONTZERTUAK

#### ERRATZU

► **Urtarrilak 28an.**

Gauko 11etan, Etxelebertzeko Txokoa, BALERDI-BALERDI, MORAU eta Xabier MONTOIA. Xorroxin Irratiak antolatua.

### BERTSOAK

#### ELIZONDO

► **Urtarrilak 22an.**

Arratsaldeko 7etan zinean, Lizaso, Egaña, MuruA, Iturriaga, Maddalen Lujanbio eta Arozena. Antolatzailea: Leitzako Euskaltegia (IKA).

### GUARDIAKO BOTIKAK

► **Urtarrilaren 16tik**

**22ra** Etxalar, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Leiza eta Goizueta.

► **Urtarrilaren 23tik**

**29ra** Arantza, Doneztebe, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

## ETXEBIZITZAK

**BERA.** Pisua salgai Eztegarra karrikan. ☎ 637184.

**Baztan-Bidasoa** inguruan borda edo baserria erosi- konuke. ☎ 396502 (Lurdes).

**Borda** bat erosi nuke. Berdin zait eroria edo zutik egotea. ☎ (943) 550979 (Alfon).

**DONEZTEBE.** Pisubatero- siko nuke. ☎ 450326.

**IRURITA.** Etxe bat salgai, terrenoarekin. ☎ 580288.

**NARBARTE.** Pisua salgai bajera eta baratzearekin. ☎ 635219 (arratsetan).

**NARBARTE.** Pisua eta ba- jera salgai. ☎ 585018 (arrat- saldeko 7,30etatik goiti).

## DENETARIK

**Gerezi** eta **intxaur** plantak salgai. ☎ 453037 (3etatik 4etara).

**Kartelak**, **afitxak**, **Bisita txartelak**, **Talonarioak**... egiten ditugu. Merke eta az- kar. ☎ 631188. Bulego or- duetan.

**Dendarako** estanteak, ba- lantza, mozteko makina, kontuak egiteko makina, fruta erakustailea, erakus- taile frigorifikoa... salgai. Hagitz merke. ☎ 630680.

**SANGO** markako karro- denda salgai. Bi ohe zabal etaabantzea ere badu. ☎ 610738.

**Ontzigarbigailu** edo "la- vavajillas" gutxi erabilia, merke saltzen da. ☎ 510012.

**Argazki kamarako 70-200** zooma eta duplikadora, biak Tanrom markakoak salgai. ☎ 637034.

**30 m'ko bajera** alokatze- ko dago Lesakako Bittiria karrikan. ☎ 637034.

**Ordenadorea** salgai. ☎ 615040.

**Errege egunean**, urrezko aliantza topatu nuen Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan. ☎ 630595 (gauetz).

**Telebista koloretako Thomson 22 pulgadako**, **urruneko mandoa** eta **te- letestuduna** salgai. ☎ 580539.

**Intxaur landare**ak salgai. ☎ 510227.

**Haritz amerikano** eta **gaz- tain plantak** salgai. ☎ 450888 (eguerdi eta arra- tsetan).

Zure osasunerako ezin ho- beki lekukurik estudio bat salgai. Hondartza eta ga- tza artean. ☎ 631339.

## AZIENDAK

**Zakur** gazte bat galdu da Leitzako Leitzalarrea men- dian. Bracco arrazakoa da, gris iluna-beltza kolorekoa. ☎ 510343.

**Zakurkumeak** salgai, Husky Siberiar arrazako- ak, Espainiako txapeldun eta bi Pirenatan parte har- tu duten zakurren kumeak dira. ☎ 637008.

**Ardi zakurrak** salgai. Borondatea eskertzen da. ☎ 634074 (Xalbador- Arantza).

**Zakurkume grifona**, **bi hi- labete terdikoa** salgai. ☎ 637040 (arratseko 8,30eta- tik 9etara).

## IBILGAILUAK

**Patrola** 4x4, furgoi gisa- koa, 4 zilindro eta diesel motorrak salgai. ☎ 637704 (gauetz).

**Vespino** motoa salgai Lesakan. ☎ 637173.

**Moto bat** salgai, Aprilia AF1 125 Futura markakoa. Egoera ezin hobean. ☎ 452292.

**R-18 gasoilezkoa** saldu nahi nuke. 250.000 Pta. ☎ 510167.

## LANA

**Irakasle** tituluduna eta EGArekin, urte osoan Beran zein Lesakan klase partikularrak emateko prest (euskara, OHO, REM, frantzesara...). ☎ 630182- 637839 (Klarisa).

## AGURRAK

**Patxi A. ren** partez Begoña C.ri, oso ona dagoela.

'Cara Plato' ren partez, mu- xu bat Maria G.ri.

**Aresoko** Xabi eta Gorkari zorionak eta muxu haundi bat beren urtebetetze egu-

nean, urtarrilak 24 eta 29an. Uxue eta Zuriñe.

**Narbarteko** Iñaki eta Ismaelentzat. Zorionak zuen urtebetetzean, urta- rrilak 20 eta 22. Zuen la- gun baten partez.

**Etxalarko** neska-mutilen partez, Bidane M. eta Unai O. ateratzea nahi dugu.

**Berako** neska-mutilen par- tez L.I. eta I.T. berriz ater- ratzea nahi dugu.

**Lesakako** Elena Andreseri: Arras polita zara eta ho- berena nere klasean. Zorionak niri aurkitzeaga- tik Elizondoko Sergio E. ren partez.

## Gida 95



**ttipi-ttapa**

Baztan, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka eta Sarako PROFESIONAL, KOMERTZIO ETA LANTEGI guztien

## Gida Komertziala


- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala
- ✓ Profesional, komertzio eta lantegi guzti-guztiak bilduko dituena.
- ✓ Herrika eta aktibitateen arabera klasifikatuak.
- ✓ Urte osoan eta momentu guzitan kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa ezberdinekin

Eska ezazu informazioa konpromisorik gabe • ☎ 63 11 88

# JUAN LARREGI

B I T X O

Santiago karrika, 10 • ☎ 58 08 98 • ELIZONDO



MOD. 235 R  
**69.923 Pta.**  
BEZ barne

MOD. 245 R  
**89.550 Pta.**  
BEZ barne

MOD. 245 R  
**119.336 Pta.**  
BEZ barne




**Auto, Kamioi, Traktore...  
Kubiarta lehertuak eta  
zuluatuak konpontzen  
ditugu**

**PROMOZIO  
BERRIAK  
MOTOZERRETAN** 

**54.358 Pta.**  
Zaharrarengatik  
14.631 Pta. ordainduz


Tanilako Prezioa: 68.989 Pta.



MOD. 45

**66.461 Pta.**  
Zaharrarengatik  
16.625 Pta. ordainduz


Tanilako Prezioa: 83.086 Pta.



MOD. 55

**104.983 Pta.**  
Zaharrarengatik  
26.540 Pta. ordainduz

Tanilako Prezioa: 131.523 Pta.



MOD. 272 16

**Husqvarna**

Eskuturrerako Erlojua.



Personalización  
opcional,  
máximo 17 dígitos.

**150.000 Pta. Urtebetera.**

Splendíd Eitze azkar (4-7 litro) jokua.



Tapa común.

**175.000 Pta. Urtebetera.**

Fagor Berogailua.



De aceite - 1500

**225.000 Pta. Urtebetera.  
125.000 Pta. 2 urtera.**

Splendor Sukalderako Bateria.



8 piezas.  
Asas  
doradas.

**375.000 Pta. Urtebetera.  
200.000 Pta. 2 urtera.**

Thomson Musika-Ekipua.



Radio  
Compat Disc  
Cassette

**850.000 Pta. Urtebetera.  
400.000 Pta. 2 urtera.  
275.000 Pta. 3 urtera.**

Olivetti Fax - Telefono - Erantzungailua.



**1.775.000 Pta. Urtebetera.  
850.000 Pta. 2 urtera.  
575.000 Pta. 3 urtera.**

Zatoz Euskadiko Kutxara, egizu ezarpena eta eraman itzazu etxera dagozkizun interesak.

  
**CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA**



**A N S O N E A**  
J a t e t x e a



Foruen Plaza • BERA  
© 948 - 630072

*Ansonia  
zoriontsu behar  
duzuena trokoa*

# A N S O N E A

## J a t e t x e a

Aurten ezkontzekotan baldin bazaudete, etorri edo deitu Ansonia Jatetxera.

Menu bereziak ditugu, prezio egokietan.

Zuen besta ongi ateratzeko eta 'Codorniu' etxearekin bat eginik, txanpaina dohainik izanen duzue.

Ah, ah, eta hau bai sorpresa!

Aurten ezkontza geure etxean eginen duten guziekin bazkari bat eginen dugu *abenduaren 29an*, eta bertan, *250.000 pezetako 4 txeke zozketatuko* ditugu.

Edozein kontsulta edo presupuestoaren berri jakiteko deitu inolako konpromisorik gabe.

*Zorionak*

**MUEBLES**  
**METS**  
*mobleak orokorrean*

BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA



- *Sukaldeak*
- *Targelak*
- *Logelak*
- *Bainugelak*
- *Pareta*  
*Armairuak*